

Iruñeko Udalaren zentsura saioa salatu dute

Nafarroako hainbat liburutegitan BERRIA eta 'Gara' kazetak erosteko debekuaren aurka agertu dira NaBai eta ELA

ERREDAKZIOA. IRUÑEA

ELA sindikatuak eta NaBaik gogor salatu dute Iruñeko eta Barañaingo udalek (Nafarroa) liburutegietan BERRIA eta GARA ez erosteko hartu duten erabakia. Biek salatu dute zentsura saioa dela eta informazio eta ideologia askatasuna urratzen dituela.

Bi udalek hartutako erabakiaren ondorioz, lau egunkari izango dira soilik irakurgai Iruñeko zortzi liburutegi publikoetan eta Barañaingoan. Hori salatzeko eskutitza kaleratu zuten Asnabi Nafarroako Liburuzainen elkarteak. 167 liburuzainek sinatu zuten eskutitza. Haien arabera, despotismo ekintza da erabakia. Hala, Unescok liburutegien inguruan ebatzitako definizioa gogorarazi zuten. Liburutegia informazioaren gunea da; bertan, erabiltzaileak era guztietako ezagutza eta informazioa aurki dezakete. Gainera, Nafarroako Liburutegien Legeak ez duela informazio askatasuna bermatzen salatu zuten.

NaBaiko Iruñeko Udaleko zinegotzi Txema Mauleonek kritikatu du Paz Prieto Kultura zinegotziaren jokabidea. Ez dagokio berari halako erabaki bat hartzea. Gainera, azalpenik eman gabe hartu du. Hala, liburuzainak babestu ditu. Haiek dioten bezala, Prietoren jokabidea liburutegien kudeaketaren oinarritzko printzipioen aurka doa.

ELA sindikatuak ere kezka agertu du Barañainen eta Iruñean gertatutakoagatik. UPN egiten ari den jazarpen politikaren barruan kokatzen da erabakia, sindikatuaren irudiko. Liburuzainekin bat egin du sindikatuak ere: Erabakiak liburutegietako langileek egin behar duten lanarekiko esku-hartzea dakar, zerbitzu eta baliabideen kudeaketa haien eskuduntza baita. Erabakia bertan behera uzteko eskatu du ELAk.